



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

JESUSEN BERPIZKUNDEA

7. GAIA **GURASOAK PARROKIAN**

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



1. Helburua

- Berpizkundera Jesusen bizitza eta predikuaganako Jainko Aitaren berrespena dela eta berrespen hori beti heriotza baino indartsuago diren Maitasun eta Bizian agertzen dela ulertu.

2. Helburu bereziak

- Lehen ikasleek Berpiztuarekin izan zuten bategitearen esperientzia eta horrek beren bizitza nola aldatzen duen eta dakarkion zentzu eta misio berria ezagutu.
- Jainkoa bidelagun dugunez, Jesusen Berpizkundearen gertaerak itxaropentsu bizi gaitezkeela agertzen digu.



3. Ideia nagusiak

- Fededunentzat, Jesusen Berpizkundera urrats erabakigarria da, gure galderen eta betirako bizitzeko nahien erantzuna.
- Aita, gizon eta emakume guztientzako maitasun mugagabe eta eskuzabala den Jainkoa dugu. Bakarrik bere maitasunak ekar dezake piztuera eta maitasun osoa.
- Geuri ere berpiztea dagokigula jakiteak indar eta itxaropena ematen digu bizitza zentzunez bizitzeko.
- Gure bizia Jainkoarengandik datorrela eta Berarekin batera berpiztutako bizitzan amaitzen dela diosku fedea.




4. Ezinbesteko lagungarriak

- Ebanjelioko txatala: Lukas 24, 1-12. Hilobia hutsik. I. eranskina.
- Ebanjelioko txatala: Lukas 24, 13-35. Emauseko kontaketa. II. eranskina.
- Bideoa: El peregrino de Emaus (Esteban Gumuzio). II. eranskina.
- Oinatzaren irudia. III. eranskina.
- Emauseko ikasleen irudia. IV. eranskina.

Garrantzitsua da saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldez aurretik, gauza guztiak prestatzeko astia hartzea.

A. ERANSKINAK GURASOEN SAIOA PARROKIAN



Saiorako gida Laguntzailearentzat...

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena (15 minutu). 1-3 urratsak.
- 2. unea: Edukiaren garapena (15 minutu). 4. urratsa.
- 3. Unea: Bilketa eta laburpena (20 minutu). 5-6 urratsak
- 4. unea: Otoitza eta barneratzea (10 minutu). 7. urratsa.
- 5. unea: Familian bizitzeko. 8. urratsa.




Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Partaideei ongi etorria adierazi eta guztiak agurtu ondoren, giro egokia sortuko dugu saioari hasiera emateko. Laguntzaileak landuko den gaia aurkeztu eta sarrera egingo dio. Beste urrats bat emanez, Jesusen Berpizkundera ulertzen saiatuko gara. Jesusen Berpizkunderak gure fededun bizitzari zein zentzu ematen dion ikusiko dugu.



1. urratsa. **"Geure esperientziari begira"**. Hasierako solasaldia:

- Zer dakigu Jesusen Berpizkunderaz, zer entzun dugu, zer ulertu?
- Zer esan nahi ote du? Zein ondorio du kristau federako, fededunen bizitzarako?



2. urratsa. Laguntzailearen azalpen laburrak.

- Jesus hil da; azkenean, lortu zuten paretik kentzea. Agintari juduek, eta baita ikasleek beraiek ere, gurutze hartzen dena bukatu zela pentsatu zuten. Lasaitu ederra hartuko zuen askok, traba egiten zion hura desagertu baitzen. Baina egundoko ustekabea izango zuten... Galburuak, lurrean hiltzen denean ematen du fruitu ugari.
- Jesusen Berpizkundera hil edo biziko gertaera da Maisuaren heriotza beren ilusioen porrot bezala bizi izan zuten ikasleentzat. Beren bizitzan galdera nagusi bat nabarmendu zen eta orain harrিতuta, zur eta lur daude. Jesusek, bestalde, kale egin zien makina baten itxaropenei, Israeli galdutako nagusitasuna itzuliko ziokeen mesias politikoaren zain zeudenen itxaropenei nahiz lege, tenplu eta kultuaren lehengoratzearen zain zeudenen itxaropenei. Azken batean, ikasleen beraien itxaropenei: ("Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel...") (Lukas 24, 21). Beraz, errealista izan eta aurreko bizitzara bueltatu beharra zegoen. Amaitu zen aldi eder bezain labur hura.
- Hala ere, handik gutxira, beren bizitzak hankaz gora jarriko dituen zerbait gertatuko da. Taldeko hainbat emakumeren ahotik entzuten dute Jesus bizirik dela, berarekin topo egiten dutela, eta esperientzia bera kontatzen diete Pedrok, Emauseko ikasleek eta apurka-apurka gainerako guztiak: "Egia da! Piztu da Jauna eta Simoni agertu zaio" (Lukas 24, 33).



3. urratsa. Une honetan Jesusen Berpizkundearen berri ematen duen ebanjelioko txatala irakurriko dugu: Lukas 24, 1-12, "Hilobia hutsik" (II. eranskina). Ondoren, galdera hauei erantzungo diegu:

- Nori agertu zaio? Noiz?
- Zein jarrera hartzen dute?
- Zein esanahi izan zuen gertaera honek beraientzat?, zein sentimendu azaleratzen da?
- Zein dei, agindu, jasotzen dute Jesusengandik?

Bateratze-lana...Kartulinan jasoko ditugu erantzunak.



Bigarren unea. Edukiaren garapena



4. urratsa. Laguntzaileak Jesusen Berpizkundearen eta berpiztuarekin bat egitearen ingurukoak azalduko ditu. Horretarako, "6. ERANSKINA: ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT" atalean jasotzen den materialaz baliatuko da.

Hona hemen ideia nagusiak:

- **Apostoluek Jesus Berpiztuarekin izan zituzten ELKARTZEAK kontaktzen dituzte.** Nolakoak izan ziren elkartze horiek? Nola bizi izan zituzten? Fedean bizi izandako elkartzeak dira, baina benetakoak, zehatzak eta Berpiztua historian "agertzen" da. Jesus Berpiztuaren agerraldien kontaketa hauek hainbat gauzatan datoz bat.
- **Jesusen EKIMEN dira.** Ikasleek, emakumeek... ez dute espero, etsita, triste, daude, kale egin diela uste dute... Eta bat-batean, Jesus agertu eta zur eta lur geratzen dira.
- **AITORTZA.** Hasieran ez dute ezagutzen, beren begiek ez dute ikusten, baina ezagutu zuten Jesus hura, gurutzean josi zuten Bera (eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien; ogia zatitzean ezagutu zuten), dute aurrez aurre. Ez da mamua, benetan bizirik dago. Jesus da, beren bizilaguna, orain aintzaz beterik Jainkoarengan bizi dena.
- **Berpiztuarekin bat egiteak MISIORA garamatza.** Bizi izan dutenaren ostean, Kristo bizirik dela hots egitera doaz. Jainko Aitak berretsi du beren jardute eta mezua eta ezinbestekotzat jotzen dute hots egitea.



Hirugarren unea. Edukiaren garapena



5. urratsa. Orain, laguntzaileak Emauseko kontaketa irakurriko du. Entzungo denez, ikasleek bat egiten dute Jesus Berpiztuarekin: Lukas 24, 13-35 (II. eranskina). Bestela, idazkia banatu helduei (II. eranskina) eta Esteban Gumucioren "El peregrino de Emaús" bideoa-kanta ikusi eta entzun.



**Para ver el vídeo,
pulsa sobre la imagen**



6. urratsa. "Emauserako biden" jarduera. Eman dezagun beste urrats bat, Emauserako bidean zihoazen erromesen esperientzia ezagutuz. Bizipen hori geure bizitzara eramán eta hor ere Jesus Berpiztua agertzen dela senti dezakegu.

- Jesusek bidaiara deitu zituen adiskideak, besteekin batera eta besteentzat bizitako bizitzako bidaiara.
- Jesus bidera irteten da, hurbildu eta beraiekin egiten du bidea.
- Pozez gainezka zuten bihotza. Jesusek bere buruaren inguruko istorioak kontatzen dizkie.
- Zer nolako poza sentitzen duten bi gizonak Jesus beren ondoan dela konturatzean! Ogia zatitzeko eragatik ezagutu zuten.
- Jesus bizirik dago, beraiekin da.



Orain, geuri dagokigu ikasle haien sentipen haiek izatea. Oinatzaren marrazki bana emango diegu taldekideei (III. eranskina). Denok garela erromes, ibiltari... adierazten du oinatz horrek. Musika jarri eta idatz dezatela bertan:

- Adore eman eta aurrera egiten lagunduko dizun pare bat gauza.
- Jesusekin bat egiteko, Jesusen lagun min izateko egin dezakezun beste pare bat.
- Besteei,... bidean aurki ditzakezunei laguntzeko pare bat ekintza.
- Oinatzak otoitzaldian erabiliko ditugu.



Laugarren unea. Otoitza eta barneratzea



7. urratsa. Saioaren azken txanpan, otoitz eta barneratzerako unea izango dugu. Bizi izandakoa jasoko dugu, egin eta sentitu duguna bihotzetik pasatuz.

- Isiltasuna egin barrutik eta kanpotik...
- Jesus Berpiztua gure artean dela irudikatzen duen kandela piztuko dugu... kandelari begiratu...
- Emauseko ikasleekin bidean den Jesus Berpiztuaren irudiari begiratuko diogu (IV. eranskina).
- Ondoren, isilik, partaide bakoitzak bere oinatza irudiaren inguruan ipini eta aipa dezala bertan idatzitako zerbait...
- Amaitzeko, elkarrekin egingo dugu otoitza:

**Gera zaitetz gurekin, Jauna, iluna gainean dugu-eta;
bidea neketsua eta nekea itzela da-eta.**

**Gera zaitetz, burua lasaitzen eta arima arakatzen duten
Zure hitz biziak esan diezazkiguzun.
Kitzikatu gure bihotz gaixoaren hausberoa,
uxatu zalantzak eta kendu beldurra.
Zatika iezaguzu zure konpainiaren ogia;
ireki logaletutako fedearen begiak.**

**Gera zaitetz eta berritu balio eta ametsak;
emaiguzu, berriz ere, zure altxor eta bakea.**

**Gera zaitetz gurekin, Jauna, iluna gainean dugu-eta;
bidea neketsua eta nekea itzela da-eta. Amen.**



8. urratsa. "Familian bizitzeko". Nagusi eta txiki, elkarrekin ikusi Emauseko kontaktari buruzko bideoa: "Emaús, quédate con nosotros".²



**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**

Ondoren, familiak oinatzaren ariketa egingo du. Nagusiek parrokiako saioan egindakoa azalduko die hurrei eta, orain, batera idatziko dute:

- Jesusekin bat egiteko, Jesusen lagun min izateko egin dezakezun pare bat gauza.
- Besteei,... bidean aurki ditzakezunei laguntzeko pare bat ekintza. Zer egin dezaket?

I. Eranskina

"Hilobia hutsik", Lukasen Ebanjeliotik 24, 1-12

Asteko lehen egunean, goizean goiz joan ziren emakumeak hilobira, prestaturiko ukenduak berekin zituztela. Hilobi-sarrerako harria biratua aurkitu zuten. Sartu ziren, baina ez zuten Jesus Jaunaren gorpua aurkitu. Zer pentsa ez zekitela zeuden, eta, hartan, bi gizaseme agertu zitzaizkien jantzi distiratsuz. Emakumeak ahuspez lurrera erori ziren ikaraz. Baina gizaseme haiek esan zieten:

«Zergatik zabilzate hildakoen artean, bizi denaren bila? Ez dago hemen, piztua da. Gogora ezazue zer esan zizuen oraindik Galilean zegoela: alegia, Gizonaren Semea bekatarien eskuetara eman behar zutela eta gurutziltzatu, eta hirugarren egunean piztu egin behar zuela».

Oroitu ziren haiek Jesusen hitzez, eta, hilobitik itzulirik, gertatutako guztiaren berri eman zieten Hamaikiei eta gainerako ikasleei. Magdalako Maria, Joana eta Maria Santiagorena ziren emakumeok; hauekin batera joandako beste emakumeek ere gauza bera esaten zieten apostoluei. Baina apostoluek zorakeriatzat hartu zituzten berriok, eta ez zieten sinetsi. Hala ere, Pedro jaiki eta hilobira joan zen lasterka; makurturik, barrura begiratu eta oihal-zerrendak bakarrik ikusi zituen, eta etxera itzuli zen gertatuaz harriturik.

- **Nori agertzen zaio?**
- **Noiz?**
- **Zein jarrera hartzen dute?**
- **Zein esanahi izan zuen gertaera honek beraientzat?, zein sentimendu azaleratzen da?**
- **Zein dei, agindu, jasotzen dute Jesusengandik?**

II. eranskina. Emauseko kontaketa Lukasen Ebanjeliotik 24, 13-35


Egun hartan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora . Gertakari guztietaz mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera ondoratu zitzaien eta beraiekin joan zen. Baina ikasleek begiak itsu zituzten eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: «Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?». Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta beraietako batek, Kleofas zeritzanak, honela erantzun zion: «Zeu izango zara egun hauetan Jerusalemen gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!».



«Zer gertatu da, bada?» -esan zien hark. Haiek erantzun zioten: «Jesus Nazaretarrarena; profeta handia zen hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan; baina gure apaizburu eta agintariak heriotzara kondenatu dute eta gurutziltzatu. Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel; baina badira hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeru batzuk agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutako batzuk ere izan dira hilobian eta emakumeek esan bezala aurkitu dute guztia; baina bera ez dute ikusi».

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai buru gutxikoak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez ote zuen Mesiasak hori guztia sufritu behar bere aintzara iristeko?». Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, aurrera jarraitzeko keinua egin zuen Jesusek. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Ondoren, elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazioa esan, zatitu eta eman egin zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten, baina Jesus desagertu egin zitzaien begi aurretik.

Haiek elkarri esan zioten: «Ez al geneukan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzaigunean?». Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren; eta Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, honela ziotela: «Egia da! Piztu da Jauna eta Simoni agertu zaio». Bi ikasleek bidean gertatua eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten kontatu zieten.



**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**

III. eranskina



IV eranskina - Emauseko ikasleak



"EZ DAGO HEMEN, PIZTUA DA" (LUCAS 24, 6)